

## **ARRASATEKO EAJ-K POSIZIONATU BEHARRA DU: POLITIKA ALA LOKATZA**

Arrasateko EH BILDU harriturik eta kezkatuik dago Ibon Arrupe alkateordearen azaroaren 10eko Goienako azken gutuna irakurrita, EAJk gure herrian politika lokazteko duen norabideaz. Politika garaikideak izan beharko lituzkeen bizikidetzak eta errespetu ezaugarrien aurkako zerbait dela iruditzen zaigu.

Gauza ez da hemen hasten. Zoritxarrez, benetan zoritxarrez, legealdi honetan zehar une jakin batzuetan Arrasateko EAJko kide jakinek motibazio ideologikoz eta botere harremanak baliatuz, ideologia ezkertiar eta abertzalea duten herritarrak eta eragileak iraindu eta mespretxatu dituzte.

Arrasateko EH BILDU orain arte ahalegindu da etxe barruan hitz egiten hau EAJrekin, uste baitugu inori ez zaiola komeni horrelako giro politikoa herrian, ez EH BILDUri, ez EAJri ezta gutxiago ere herritarrei. Konpromiso zehatzak hartzera ere iritsi izan gara zentzu honetan giro politikoaren distentsioa helburu, baina zoritxarrez protagonistak eta jarrerak errepikatzen dira.

Hau dela eta, galdera publiko eta zuzena egiten diogu Arrasateko EAJri: politika eraikitzailea egin nahi duzue ala zuenak egiten dituzue alkateordearen hitzak?

EH BILDUK erantzun publiko eta argia eskatzen dio norabide honetan, anbiguotasunik gabea. Adi jarraituko diogu erantzunari, baina alderdikeriak eta ezinikusiak gairatzeko garaia dela deritzogu.